

NAFARROAKO FORUZAINGOAREN LANALDI, ORDUTEGI ETA ORDAINSARIEN ERREGELAMENDUA	
Tramitea:	ARAUAK IDATZI AURREKO KONTSULTAK
Bitartekoa:	GOBERNU IREKIAREN ATARIAN ARGITARATZEA
Araua:	39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, arauak prestatzeko prozeduran herritarren parte-hartzea hobetzeko, erregelamendu proiektu bat egin aurretik kontsulta publiko bat bideratu beharko da administrazio eskudunaren web atariaren bidez, jakiteko zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta ordezkartzarik handiena duten erakundeek. Txostenean gai hauek jasoko dira:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Aukeran dauden beste konponbide batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

Aurrekoa betez, hala nahi duten herritarrek, erakundeek eta elkarteek 2019ko martxoaren 8(e)ra arte galde-sorta honetan planteatutako alderdien gaineko iritziak igor ditzakete helbide elektronikoa honetara: serejupe@navarra.es

1. KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK

- Erabateko operatibitate eza, ordutegietan eta lanaldietan zorrotasun handiegia izategatik.
- Ordainsarien desorekak lanpostu batzuetan.
- Giza baliabideak kudeatzeko eraginkortasunik eza unitate batzuetan.

2. ARAUA ONESTEA BEHARREZKOA ETA EGOKIA DEN

- Nafarroako Poliziak arautzen dituen araudi esparru berrira egokitzea (esparru hori Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Legeak onetsi zuen), Nafarroako Foruzaingotik aplikatu beharreko lanaldiei, ordutegiari eta ordainsariei dagokienez.
- Arau berriari ezarritako ordainsari osagarriak zehazteko tresnak eta irizpide objektiboak erregulatzea.
- Lanaldien eta ordutegiaren araubidea ezartzea, polizien eginkizun bereziari erantzuten diona. Eginkizun horrek berehalakotasuna, malgutasuna eta langileen prestasuna eskatzen ditu; horrela, ziurtatzen ahalko da herritarren ongizatea eta lasaitasuna bermatzen dituzten segurtasun publikoko zerbitzuak ematea. Lanaldien eta ordutegiaren araubideak behar horiei eman behar die erantzuna, baita polizien eskubideak bermatzeko aukera eman ere, funtzionarioak diren aldetik.

3. ARAUAREN HELBURUAK

- Proporzionaltasun eta hierarkia printzipioetan oinarriturik dagoen ordainsarien sistema bermatzea Nafarroako Foruzaingotik langileendako, enplegu eta espezialitate desberdinak kontuan hartuz.
- Behar diren zuzenketa neurriak ezartzea, eta proporzionaltasun-adierazleak finkatzea, Nafarroako Polizietako langileek jasotzen dituzten ordainsarien gutzitza (barne harturik oinarritzko ordainsariak –gradua eta antzintasuna kenduta–, ordainsari osagarriak eta ordainsari aldakorak, 23/2018 Foru Legearen 57.1 artikuluko c apartatuko g) letran jasotakoak) behar bezalako proportzioa mantentzeko eskala desberdinen artean.
- Ordainsari osagarriari dagozkien portzentajeak zehaztea, eta Nafarroako Foruzaingotik enpleguei eta unitateei esleitu
- Ordutegi berriaren araubidea ezartzea unitate operatiboetan, haien lana dela-eta beharrezkoa denean, malgutasun- eta prestasun-beharrak kontuan hartuta

4. AUKERAN DAUDEN BESTE KONPONBIDE BATZUK

Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legean xedatutakoaren arabera, lortu nahi diren helburuak soilik arau bidez gauzatzen ahalko dira. Beraz, ez dira bidezkoak arautzen ez duen konponbidea edo bestelako formulak bidezko arautzea.